

Bi militante politikoen espetxeratzeen harira

JARKI :: 20/11/2020

JARKI antolakunde iraultzaileak espetxeratze hauek salatzeke mobilizazioetan parte hartzeke deia egiten du.

JARKI antolakunde iraultzaileak ohar honen bitartez era irmoan arbuiatzen du, iragan azaroaren 16an ertzaintzak Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduko kide diren Valentina Morisoli eta Gaizka Astorkizagaren aurka burututako atxiloketak eta espetxeratzea. Era berean, bere elkartasuna adierazi nahi die militante politiko hauei eta euren hurkoei eta Fito eta Valentinaren berehalako askatasuna galdegin.

Atxiloketa eta espetxeratze hauek amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako jazarpena sustatzera bideratutako egintzez haratago, honen kriminalizazioan sakontzeko beste pauso bat baino ez dira, argi izan behar dugularik amnistia Euskal Herri Langileak pairatzen duen nazio zein klase zapalketa gainditzeko bidean ezinbesteko baldintza dela. Izan ere, amnistia, Euskal Herri Langilea arrotzak eta estatuaren biolentziaren monopolioaren bitartez inposatuak zaizkion baloreei aurre egiteko legez kanpoko izaerako ekintzak burutu, babestu edota ulertzea behartuta ikusterakoan gorpuzten den beharra da.

Era horretan, JARKI antolakunde iraultzaileak espetxeratze hauek salatzeke mobilizazioetan parte hartzeke deia egiten du.

Euskal Herrian, 2020ko azaroaren 19an

<https://eh.lahaine.org/bi-militante-politikoen-espetxeratzeen-harira>